

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 10/2020 Zerga premiazko araugintzako dekretua, irailaren 8koa. Onespena ematea Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauaren aldaketari, COVID-19aren ondorioz

Zerga premiazko araugintzako dekretu honen helburua da COVID-19ak sortutako egoerarekin loturik dauden zenbait aldaketa sartzea Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorrari dagokionez, arautzen dira bideokonferentzia bidezko jarduketak zergak aplikatzeko prozeduretan, zergadunek eskubideez baliatzea eta zerga eginbeharrak betetzea errazteko asmoz, batez ere COVID-19ak sortutako osasun krisiaren ondorioek berekin ekarri duten egoera berrian.

Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan, salbuetsizat ematen dira hipoteka mailegu eta kredituen eta hipoteka bermerik gabeko errentamenduen moratoriak formalizatzeko eskriturak, turismo sektoreari atxikitako ondasun higiezinatarako hipoteka moratoriaren aplikazioz egiten baldin badira.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak honen gainean egindako txostena azertu da.

Horren ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia azertu ondoren, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 8. artikuluan eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, presako arrazoiak direla eta, hauxe

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Arabako Zergen Foru Arauaren aldaketa

Bat. Beste apartatu bat, 10.a, eransten zaio otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauari (Arabako Zergen Foru Arau Orokorra), 95. artikuluan. Honela egongo da idatzita:

“10. Arabako Foru Aldundiaren eta zergapekoen jardunak zergak aplikatzeko prozeduretan honako baldintza hauek betetzen dituzten sistema digitalen bidez egin ahal izango dira: bideokonferentziaz edo antzeko sistema baten bidez, irudi eta soinuaren norabide biko eta aldi bereko komunikazioa eta zergapekoen eta diharduen organoaren arteko ikustezko, entzutezko eta hitzezko elkarrekintza ahalbideratzea, eta egindako jarduketaren emaitza jasotzen duten dokumentuen helarazte eta harrera segurua bermatzea, haien autoretza, benetakotasuna eta osotasuna ziurtatuz.

Sistema horiek erabiltzea Arabako Foru Aldundiak hala erabakitzen duenean egingo da eta, hartarako, zergapekoak erabilerari eta gauzatzeko eguna eta orduari buruz adostasuna ematea beharko da.”

Bi. Beste letra bat, e), eransten zaio otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauari (Arabako Zergen Foru Arau Orokorra), 140. artikuluko 1. apartatuan. Honela egongo da idatzita:

“e) Aurreko letretan adierazitako lekuetan edo beste lekuren batean, esandako jarduketak arau honetako 95. artikuluko 10. apartatuan ezarritako sistema digitalen bidez egiten baldin badira. Sistema horiek erabiltzeko, zergapekoaren adostasuna beharko da.”

2. artikulua Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Foru Araua aldatzea

Beste zenbaki bat, 51, eransten zaio martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauari (Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarena) 69. Bat artikuluko B) letran. Honela egongo da idatzita:

“51. Hipoteka mailegu eta kredituen eta hipoteka bermerik gabeko errentamenduen moratoriak formalizatzeko eskriturak, 2020ko uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege-dekretuaren 3.etik 9.era arteko artikuluetan turismo sektorerako arautzen den hipoteka moratoriaren aplikazioz egiten baldin badira.”

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuari ahalmena ematen zaie zerga premiazko araugintzako dekretu hau aplikatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzaten.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu honen berri emango zaie Arabako Biltzar Nagusiei, indarrean dagoen araudiari jarraituz izapidetzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 8a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA